

Maddi Urteaga Riaño

Emaila • Aipamena



Kaixo! Maddi Urteaga nauzue, 11 urteko neska beasaindarra. La Salle-San José ikastetxean ari naiz LH 6. maila egiten.

Padel-en jolastea oso gustokoa badut ere, gehien gustatzen zaidana nire lagunekin egotea da.

Saria irabazten dudan hirugarren urtea da eta aurten ere, poz handia hartu dut. Saria, nire familiari eskaintzeaz gain, langabezian dauden pertsonei eskaintzen diet, behar adina indar izan dezaten.

MAITASUNAREN DISTIRA

Irailaren 17a

Andereñoak idatzarazi digun eguneroko honi hasiera nola eman ez dakidala nago. Zerbait dibertigarria eta koloretsua kontatzerik izango banu, tira! Baina nire bizitza, une honetan, amonak egurrezko kutxa dotorean gordetzen dituen garai bateko argazki horien antzera, txuri-beltza da. Txuri-beltza eta gorabeheratsua. Nire barnean sentitzen dudak korapiloa askatzerik ba ote da?

Egun zalapartatsua izan da gaurkoa... Dutxa bat hartu, afaldu eta lotara noa.

Irailaren 18a

Eskolatik bueltan etorri naizenean, gaur ere aita sofán aurkitu dut erdi etzanda telebistaren aurrean, oraindik koadrodun pijama soinean zuela bostak ziren arren. Musu eman diot eta bizarra moztu gabe zuela konturatu naiz. Ez dit apenas kasurik egin. Aita langabezian dagoenetik gurekin ez da gehiegi arduratzen, lanarekin batera gureganako maitasuna desagertu zaiola dirudi. Familia aurrera atera behar horrek asko estutzen du aita eta horrela ikusteak pena handia sortzen dit.

Irailaren 27a

Aitor eguerdian andereñoak zigortu duela esanez etorri da etxera eta arratsaldean patioa garbitzen geratu behar dela esan digu. Aita eta ama haserretu baino kezkatu egin dira. Nire anaia mutil jator eta leiala da, liskarretatik ihes egiten duen horietakoa da. Mikelek, ergel

bezain harroputz horrek, aitaren egoeraren inguruko komentario iraingarriak egin ditu gelan. Aitorrek aurre egin dio baina Mikel bultzaka hasi zaio, gero kolpeka eta azkenean bik muturka bukatu dute Jon maisua gelan sartu eta banandu dituen arte.

Ezpainak zartatuta ditu, masail hezurrean ebakitxo bat eta begiondoa hazi-hazita dauka. Aitak zauriak garbitu ondoren, elkarri begira jarri eta besarkatuta gelditu dira hitzik ere esan gabe. Aitaren malkoak ama eta biok hunkitu gaitu. Isiltasunean nire bihotzaren taupaden hotsa, taup-taup, taup-taup...

Urriaren 6a

Amonarekin planak egitea gustatzen zait eta gaur elkarrekin bazkaldu dugu aspaldiko partez. Nire amonak, maitagarrien antzera, arropa koloretsuak janzten ditu, ilea hori-horia dauka, begi txiki bizi-bizirik, irribarre gozoa eta gauza zailenak errazak bihurtzeko gaitasuna ere. Bere ondoan indarberritu egiten naiz, sakon eta lasai arnasten dut eta handi-handia sentitzen naiz korapiloa astiro-astiro askatzen doan heinean. Magia? Sorginkeria? MAITASUNA!

Amonarekin kartetan ari nintzela berriro ere errepikatu dit bolada tristeak badutela gauza on bat: bukatu egiten direla.

Maitagarriak esandakoarekin amestuko dut...

Urriaren 28a

Gaur aita oso urduri dago eta bera urduri dagoenean ni ere egoten naiz. Zortzi hilabete langabezian egon ondoren, lan elkarrizketa baterako prestatu behar du. Armairutik amak lisatutako alkandora hartu du eta ispilu aurrean gorbatako korapiloa egiten saiatu da. Amak bere ikutua eman ondoren, logelatik atera da dotore-dotore eginda, lurrin usainarekin, ondo orraztuta eta bizarra txukun moztuta.

Esku artean zuen ordenagailu eramangarria askatu, hasperen egin eta lauok besarkada estu-estuan bat egin dugu, maitasunez, kolorez eta distiraz blai.